

## **EUROPAKO ITSAS ETA ARRANTZA FUNTSA KUDEATZEKO EAE-KO BITARTEKO ERAKUNDEAK IRUZURRAREN KONTRA DARABILEN POLITIKA.**

### **Sarrera**

EIAFen 2014-2020 aldiko Programa Operatiborako Bitarteko Kudeaketa Erakundea Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko unitate bat da.

Bitarteko Kudeaketa Erakundea osatzen duten enplegatu publikoen egitekoa da, besteak beste, "interes orokorrak zaintzea, Konstituzioari eta gainerako antolamendu juridikoari begiratuta eta haiei lotuta; printzipio hauek oinarri hartuta jardun beharko dute beti: objektibotasuna, osotasuna, neutraltasuna, erantzukizuna, inpartzialtasuna, isilpekotasuna, zerbitzu publikorako dedikazioa, gardentasuna, eredugarritasuna, austeritatea, irisgarritasuna, eraginkortasuna, zintzotasuna, kultura-ingurunearen eta ingurumenaren sustapena, eta emakume eta gizonen arteko berdintasunarekiko errespetua" (7/2007 Legea, apirilaren 12koa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuarena, 52. artikulua).

Bitarteko Kudeaketa Erakundeak arau juridikoak, etikoak eta moralak betetzeari dagokionez estandar gorenei eusteko konpromisoa agertzen du, bat egiten du osotasunaren, objektibotasunaren eta zintzotasunaren goi-printzipioekin, eta bere eginkizunetan jarduteko moduagatik iruzurraren eta ustelkeriaren kontrako muturrean dagoen erakunde gisa ikus dezaten nahi du. Bere langile guztiak konpromiso horri atxikiko zaizkiola espero du.

Politika horren helburua da iruzurrezko jarduera orori atzera eragingo dion kultura sustatzea. Kultura horrek erraztu egingo du iruzurrari aurrea hartzea, hura detektatzea eta iruzurren nahiz lotutako delituen ikerketan eraginkorrak diren prozedurak garatzea; eta halako kasuei garaiz eta egokiro ekitea bermatuko du.

Iruzur terminoa legez kontrako hainbat jokabide deskribatzeko erabili ohi da, tartean lapurreta, ustelkeria, funtsak bidegabeki erabiltzea, eroskeria, faltsifikatzea, aldrebestea, kolusioa, dirua zuritzea eta egitate materialak ezkutatzea. Berekin ekarri ohi du, sarritan, gezurra erabiltzea norberaren, inguruko baten edo hirugarren baten mesedetan, edota hirugarren bati galera eragitea. Nahita egitea da iruzurra irregulartasunetik bereizten duen gako elementua. Izan dezakeen eragin finantzarioaz gainera, iruzurrak kalte egiten dio funtsen kudeaketa eraginkor eta efizientearen ardura duten erakundeen ospeari. Hori bereziki garrantzitsua da EBko funtsen kudeaketaz arduratzen den erakunde publiko batentzat. Ustelkeria da botereaz abusatzea onura pribatua ateratzeko. Badago interes-gatazka baldin eta pertsona baten eginkizun ofizialetako jardun inpartzial eta objektiboa kolokan jartzen bada familia- edo maitasun-kontuengatik, kidekotasun politiko edo nazionalagatik, interes ekonomikoagatik, edo norbaitekin, EBko funtsen eskatzaile edo onuradun batekin, esaterako, partekatzen den beste edozein interesengatik.

### **Erantzukizunak**

Bitarteko Kudeaketa Erakundean, zuzendaritza nagusiak hartzen du bere gain iruzur- eta ustelkeria-arriskuaren kudeaketaren ardura orokorra, eginkizun hauen bidez:

- Aldian behin iruzur-arriskuaren berrikuspena egitea, arriskuak ebaluatzeko lantalde batek lagundurik.
  - Iruzurraren kontra erantzuteko plan eraginkorra ezartzea;
  - Langileak iruzurrari buruz sentsibilizatzea;

Bitarteko Kudeaketa Erakundeak ikerketa-erakunde eskudunen eskaerei bizkor erantzuten diela bermatzea;

- Administrazio Orokorreko prozesuen arduradun eta kudeatzaileek iruzur-arriskuen eta ekintza-planen eguneroko kudeaketaren ardura dute, iruzur-arriskuaren ebaluazioan ezarritakoaren arabera, eta bereziki helburu hauetarako:
  - Nork bere erantzukizun-arloan barne-kontrol-eko sistema egokia bermatzeko.
  - Iruzurrari aurrea hartzeko eta antzemateko.
  - Behar adinako arreta eta aurreneurrien ezarpena bermatzeko iruzurraren susmoa dagoenean.
  - Kasu bakoitzean egokiak diren neurri zuzentzaileak hartzeko, administrazio-zehapenak barne.
- Bitarteko Ziurtapen Erakundeak eragiketa bakoitzari buruz beharrezkoa den informazioa erregistratzen eta gordetzen duen sistema bat dauka; Bitarteko Kudeaketa Erakundearengandik behar den informazioa jasotzen du, gastua dela-eta egiten diren prozeduretan eta egiaztapenetan.
- Auditoretzako Agintaritzaren ardura da arau profesionalei jarraituz jardutea iruzur-arriskuaren ebaluazioan, eta kontrol-esparru indarduna egokitzea.

### **Iruzurraren kontrako neurriak**

Bitarteko Kudeaketa Erakundeak iruzurraren aurka borrokatzeko neurri sendoak jarri ditu abian, iruzur-arriskuaren ebaluazioan oinarrituta. Zehazki, informatika-tresnak erabiltzen ditu arriskua duten eragiketak detektatzeko. Bitarteko Kudeaketa Erakundeak benetako iruzurraren susmoa dagoen kasu guztiak eta gertatutako kasuak aztertzen ditu, barneko kudeaketa- eta kontrol-sistema berrikusteko eta, behar izanez gero, hura hobetzeko.

### **Ondorioa**

Iruzurra modu askotan azal daiteke. Bitarteko Kudeaketa Erakundeak tolerantzia izpirik gabeko politika darabil iruzurraren eta ustelkeriaren aurrean, eta konpromisoa hartu du prebentzioan aritzeko, ahalik eta iruzur-kasu gehienak detektatzeko eta, gertatuz gero, haien ondorioak zuzentzeko.

Politika horrek eta dagozkion prozedura eta estrategia guztiek Iruzurraren aurkako Koordinaziorako Zerbitzu Nazionalaren babesa dute. Zerbitzu hori irailaren 19ko 802/2014 Errege Dekretuaren bidez sortu zen (irailaren 26ko BOE), eta Bitarteko Kudeaketa Erakundeak harekin batera etenik gabe eguneratzen du bere politika.

ARRANTZA ETA AKUIKULTURAKO ZUZENDARIA  
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BITARTEKO KUDEAKETA ERAKUNDEKO AGINTARIA  
LEANDRO AZCUE MUGICA